



# PLAN ESTRATEGIKOAREN LEHEN URRATSAK

Larraunalea eta Leitzalderako plan estrategikoa egiteko, Mendialdeko Agenda 21 lantaldeak lehen txostena egin du 7

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2008-07-09**

VIURTEA 1.981 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Aitzol Udal Euskaltegian euskara ikasten ari diren bi taldeetako bat. I. TERRADILLOS

## GAZTE ETORKINEN ARTEAN EUSKARA SUSTATZEA XEDE

**TOLOSA** Ereite elkarteak antolatuta, 22 gazte ari dira euskara ikasten Aitzol Udal Euskaltegian; euren euskara maila «indartzea» da asmoa 2

## V. Garagardo Azoka izango da etzi eta larunbatean

**ALEGIA** Elorri pilotalekuan 9 garagardo mota egongo dira aukeran, 19:00etatik aurrera 5



Iurako ikastolaren eraikin berriak egun duen itxura. I. GARCIA

## Azken ukituen zain dago ikastolaren eraikin berria

**IRURA** Urtebeteko lanaren ostean, datorren ikasturtea bertan hasiko dute gaztetxoek 4

informazioa **h**



egunkaria buzoian, zozketak eta deskontuak, promozioetan abantailak,...



HITZAren harpidedun egiteko:

**902-82 02 01**

[hitza@harpidetza.info](mailto:hitza@harpidetza.info)

**egunean 20 zentimoren truke**





Aitzol Udal Euskaltegian gazteak ordenagailu aurrean euskara ikasten, Boga programarekin. I. TERRADILLOS

Ereite elkarteak antolatuta, 22 gazte atzerritar joaten dira Aitzol Udal Euskaltegia euskara ikastera; uztailearen 24ra arte izango da «euskara maila mantentzea eta indartzea» xede duen udako ikastaroa.

## Udan ere euskara ikastera

INIGO TERRADILLOS

**B**este lurralde bat bisitatze-ko, atsedendia hartzeko, mendira joateko, hondartzara... hainbat gauza egiteko baliatu daitezke udako opor egunak, eta baita euskara ikasteko ere. Hain zuzen ere, horretan ari dira egunotan Aitzol Udal Euskaltegian 22 neska-mutil, eta «gogotsu eta gustura» joaten dira.

Udako ikastaro berezi hau Ereite elkarte multikulturalak Tolosako Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren laguntzaz antolatutako doako ekimena da, eta gazte atzerritarrei zuzendua dago, «euren euskara maila mantendu eta indartzeko helburuz». Rita Calderon Ereite elkarte-ko kideak azaldu bezala, «udan gazteek ia 3 hilabete luze dituztela kontuan hartuta, aukera polita ikusten genuen horrelako zerbaitegiteko; bestalde, gazte atzerritar askorentzat udan hutsunea egoten da euskarari dagokionez, izan ere, ikastetxean egiten dute batik bat euskaraz, beraz, opor egunetan gutxiago hitz egiten dute euskaraz, asko kanpora doazelako eta abar; hala ikastaro hau hutsune hori

mantentzeko baliagarria izango dela uste dugu, euskaraz hitz egiten jarraitzeko aukera dutelako».

### Egunero euskaltegia

22 gazte hauek bi taldetan banatuta joaten dira egunero, astelehene-tik ostiralera euskaltegia, eta ikastaroak irauten duen artean, hau da, uztailearen 24ra arte egingo dute horrela. Goizetan izaten dituzte

### Udan euskarari dagokionez gazte hauek izaten duten hutsunea bete nahi da

ordu eta erdiko iraupena duten eskolak. Bi taldeak mailaren arabera daude banatuta, izan ere, lehenengo taldean euskara maila baxua dutenak daude, eta bigarrenean oinarriko maila badutenak.

### Adin eta jatorri ezberdinetakoak

22 ikasle hauek Tolosaldean bizi dira, Tolosan, Ibarren eta Iruran, hain zuzen, baina jatorri oso ezberdinekoak dira: Brasil, Dominikar Errepublikak, Ekuador, Erru-

mania, Ginea, Kuba, Maroko, Nikaragua, Pakistan eta Peru. «Oso gustura etortzen dira eskoletara; batzuk, hurrengo ikasturteari begira euskara maila hobetzea dute helburu, etorri berriak direlako eta oraindik euskara maila baxua dutelako, eta ikastetxean hobeto moldatzeko beharrezkoa ikusten dutelako; beste batzuk euskara ikasi nahi dutelako etortzen dira».

### Ekimen hau bezala, beste hainbat antolatzen ditu Ereitek, etorkinen gizarteratzea bultzatzeko

### Euskara ulertzea eta erabiltzeko gai izatea

Arritxu Mendizabal da euskara ikastaroa ematen duen irakaslea, eta berak azaltzen duenez, «udako oporraldian euskararekiko duten lotura ez galtzeaz gain, ikastaro honekin euskara uler dezaten lortu nahi dugu; horretaz gain, egunean zehar aurkezten zaizkien espazio edo egoeratan euskara erabiltzeko gai izatea da dugun beste helburu garrantzitsu bat».

### Ariketa interesgarriekin

Ikastaro hau berezia da, besteak beste, Boga Internet bidez euskara ikasteko multimedia programa erabiltzen dutelako. «Programa saio ezberdinez osatua dago, eta saio bakoitzak ariketa ezberdinak ditu, eta hauek burutu eta gainditu ostean ikastaroan aurrera egiteko aukera daukazu». Ariketa ezberdin ugari eskaintzen ditu programa honek: hutsuneak bete, azpimarratu, hautatu, egia ala gezurra, bikoteak osatu eta abar. «Denetarik egiten dugu; esaterako, euskal abestiekin aritzen gara, hitzak kentzen eta asmatu behar izaten dute hutsune horiek nola bete; eta noski, mintzapraktika ere egiten dugu», dio Mendizabalek.

### Murgilduz programaren baitan

Ekimen hau Murgilduz proiektuaren baitakoa da. Honen helburua etorkinen artean euskara ikastea bultzatzea eta etorkinen arteko babesa izango den sarea sustatzea da. Hala, udako euskara ikastaroaz gain, besteak beste, euskara eskolak antolatzen ditu Ereitek larunbatetan eta irteerak egiten dituzte euskal kulturaz gehiago ikasteko.

## » INKESTA

1. Zergatik joaten zara euskara ikastera?
2. Gustura joaten al zara?
3. Euskaraz hitz egiten al duzu zure egunerokoan?



«Datorren urterako maila hobetzeko joaten naiz»

### Claudia Firiscez

(11 URTE, ERRUMANIA)

1. Urte bat daramat Tolosan bizitzen, eta nahiko erraza egiten zaidan arren, hurrengo ikasturterako maila hobetzeko helburuz joaten naiz.
2. Oso gustura joaten naiz.
3. Arrebarekin, esaterako, euskaraz hitz egiten dut, eta anaiekin, euskara, gaztelania, ukrainiera eta errumanieraz. Ikastetxean, berriz, euskara eta gaztelaniaz.



«Gustura joaten naiz, oso ondo pasatzen dugu»

### Diana Celaya

(12 URTE, NIKARAGUA)

1. Urte bat daramat hemen bizitzen, eta hori dela eta, euskara gehiago ikasi nahi dut.
2. Batzuetan zaila egiten zait, baina gustura joaten naiz, oso ondo pasatzen baitugu.
3. Etxean normalean gaztelaniaz hitz egiten dut, eta lagunekin eta ikastetxean, berriz, euskaraz nahiz gaztelaniaz.



«Ikastetxean eta lagunekin, euskaraz hitz egiten dut»

### Oumaima Azoukay

(11 URTE, MAROKO)

1. Sei urterekin etorri nintzen hona bizitzera, eta euskaraz egiten dudan arren, maila hobetu nahi dut.
2. Oso gustura joaten naiz, oso ondo pasatzen baitugu, jokuak-eta eginez.
3. Nire egunerokoan, ikastetxean eta lagunekin euskaraz hitz egiten dut normalean, gaztelaniaz, berriz, oso gutxi.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**Tolosa** » Hiru egunetan zehar ospatu dituzte Amartz auzoko jaiak; antolatzaileak «gustura» daude parte-hartzearekin.

## Erromeriarekin dantzan esan zieten agur amarozkoek, auzoko jaiiei

### ERREDAKZIOA

Hiru egunetako festa eta parranda giroaren ostean, igandean esan zieten agur Amartzoko festei. Igandean, 09:30ean, Tolosako Txistulariak jeikitzeke ordua zela iragarri, hasi zen festetako azken eguna, eta bertakoen iritzi, «gogogangarrienetakoa». Garai berean, Iurreko Andre Maria elizan Meza nagusia ospatu zen, hildako auzotarren oroimenez.

11:00ak aldera hasi zen San Blaseko ermitaren inguruko belazeeetan jendea biltzen. Izan ere, garai horretan ospatzen zen erromeria. Alde batetik, auzotarrek barrikoterako prestatutako jakiak dastatu ahal izan zituzten. Jendea biltzen zihonan heinean, hasi ziren lehen doinuak jotzen ere, txistulari, trikitilari eta Konpon Ezin txarango musikariak. Hauekin batera, kalejiran jaitsi ziren auzotarrak, fandangoak, arin-arinak... jotzen zituzten bitartean. Dantza egiteaz Amartzoko dantza taldekoak eta Amartzoko Txikien Euskal Dantza taldekoak arduratu ziren.

Bestalde, Amartzoko artisau eta eskulanean erakusketa eta erakustaldia izan ziren ikusgai, festa gunean. Ekitaldi hau lehendabiziko aldiz, Beti Gazteak adinekoren elkarteak antolatuta zuen. Lehen aldia izateko, auzotarren esanetan, arrakasta handia izan zuen ekimena. Sei postu ipini zituzten denera, eta bertan ehoziri lanak, kakorratz-lanak, bainika, eskulanak... Hauek irensten laguntzeko, DJ Pitxiaren erritmo dantzagarriak izan ziren.



Jaiaren azken egunean, erromeria egin zuten Amartzen. Trikitixa doinuak alaituta, dantzan aritu ziren herritarrak. HITZA.

sartzea pentsatu dute antolatzaileek, gainera, tamaina handiagoan.

Herri bazkariari dagokionean berriz, gero eta jende gehiago hurbiltzen da otordura, eta aurtengoa lagunetik gora bildu ziren.

Arratsaldean, dantza ikuskizun gehiago izan ziren. Hor ere, Amartzoko Dantza Taldekoak eta Amartzoko Txikien Euskal Dantza taldekoak aritu ziren. Emanaldiaren baitan, ohiturari jarraituz, Aurreku herrikoia dantzatu zuten. Ekitaldi berezi honekin amaitzen dituzte auzotarrek jaiak. Honekin batera izaten da ere asteburuko azken afari-merienda. Hemen, sardinak dastatzeko aukera izaten da, sagardo eta ardoz lagunduta. Aipatzekoa da, 50 kilo inguru jan zirela. Hauek irensten laguntzeko, DJ Pitxiaren erritmo dantzagarriak izan ziren.



Amartzoko Dantza taldekoak eta Amartzoko Txikien Euskal Dantza taldekoak aritu ziren dantzan. HITZA.



## Kirola eta etika uztartzeko konpromisoa

**KIROLAK** » Oreki Fundazioak, Bide-lan-Kirolgi txirrindulari taldeak eta Asuncion klinikak kiroletako konpromiso etikoaren alde hitzarmena sinatu dute, honekin, joko garbiaren, ez dopatzearen eta kirolpraktika egokien aldeko apustua eginaz. Oreki Fundazioak zortzi urte daramatza Kirol-etik proiektuarekin, hau da, kirola eta etika uztartzuz. Hartutako konpromisok zenbait ekimen hartzen ditu bere baitan: kirolpraktika egokien adierazpena, honen konpromiso kontratua, eta Oreki Fundazioaren Arautegi Etikoa, kirolari, entrenatzaile eta gurasoei zabaldua. Herenegun egindako agerraldian, go-goan izan zuten Ramon Arbillaga mediku zendua. Bestalde, eskerak eman zituzten Asuncioni, «kirolarekiko erakutsi duen inplikazioarengatik». I. TERRADILLOS

## Oskar Zelarain Frantziatik Espainiara eramango dute gaur

### ERREDAKZIOA

Oskar Zelarain Villabonako euskal presoak gaur utziko du Frantziatik Espainiaren eskuetan, Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak jakitera eman duenez. Hori dela eta, batzarra egingo dute gaur, 20:00etan, Villabonako Berdura plazan.

2002. urteko irailaren 20an atxilotu zuen Frantziako Polizia eta kide izatea leporatuta, eta 8 urteko kartzela zigorra ezarri zioten. Fleury Merogis-eko espetxean egon zen atxilotu zutenean, eta Fresnes-era aldatu zuten 2006an. Urte berean Saint Martin de Re-ko espetxean sartu zuten, eta gaur arte izan da han.



Ezkerreko argazkian, areto nagusia, eta eskubikoan, bere ondoan dauden aldagelak. Erabilpen publikoa izango dute biek. I. GARCIA



Eraikin berrira egin zuten materialen leku aldaketaren une bat. HITZA



Goiko argazkian, LHko geletako bat. Behekoan laguntza berezirako gela bat. I. GARCIA

## Datorren ikasturterako prest

**Irura»** Irurako Ikastolaren eraikin berria egina dago. Azken ikutuak behar ditu, baina helburua bete da: datorren ikasturtea bertan hastea.

### IMANOL GARCIA

Urtebeteko lana izan da eta azken ikutuak falta badira ere helburua lortu dute. Josune Aiestaran Irura-

ko Ikastolako zuzendariak azaldu duenez, «datorren ikasturtean Lehen Hezkuntzakoak bertan hastea zen helburua eta hori lortu dugu».

### Iragarki laburrak

#### LANA

■ **Bi sukaldari eta zerbitzaria.** Ikaztegiatiko ostatu batean, bi sukaldari eta asteburutarako zerbitzaria behar da. 639 43 95 82.

#### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Deitu 657 23 00 11 edo 634 91 94 82.

Egun hauetan eskilaretako baranda jartzen aritu dira eta laster obraren itxiera emateko moduan izango dira. Eraikin berriaren kanpoko urbanizazioa ere egina dago.

Eraikinak bi solairu ditu. Behe solairuan idazkaritza, zuzendaritza eta irakasle gela daude. Bertan daude ere liburutegia, biltegia, galdara gela, areto nagusia eta aldage-

**@ Zure da hitza.** HITZAren webgunean sartuz, albisteak irakurtzeaz gain, beste hainbat aukera izango dituzu. Horien artean, zure inguruan gertatzen diren albisteei berri ematea. Horretarako **Zurea da hitza** atalean sartu besterik ez duzu eta bertan utzi dezakezu zure informazioa.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

lak ere. Hain justu, areto nagusiak eta aldagelek kanpotik sartzeko ateak izango dituzte. Izan ere, bi horiek herritarrek ere erabili ahal izango dituzte. Areto nagusia herriko areto handiena izango da.

Bigarren solairuan LHko sei gelak egongo dira. Beste bi gela izango dira laguntza berezirako. Informatika gela bat ere izango da eta eskailleren azpian biltegi bat dago. Soinketa ekintzetarako eraikinetik oso gertu dagoen frontoia erabiliko dute. Euria egiten duen kasuan, jolastoki bezala ere fontoia erabiltzea aurreikusten dute.

#### Materiala bertan

Orain bi aste egin zuten aulkí, mahai eta beste hainbat materialen leku aldaketa. Bertan, irakasle, gu-

raso eta ikasleek parte hartu zuten. Aiestaranek azaltzen duenez, «denek lagundu zuten. Ikasleak oso gustura aritu ziren laguntzen eta gainera gogo handia zuten ikusteko nola den barrutik eraikin berria».

Kilometroen festa nagusian lehen gunea izango da eraikin berria eta bertan egingo da ekitaldiaren inaugurazio ofiziala. Festa erraldoi horretatik espero dute lortzea eraikina ordaintzen laguntzeko diru kopuru handi bat.

Festa iritsi bitartean, Kilometroen materiala saltzen dihardute hainbat lekutan. Bereziatiko bat Frantziako Tourrean izango da. Kilometroen postu bat Tourmalet mendatez egunean bertan jarriko dute.

# Irurari lekukoa hartuko dio, etzi, Alegiako V. Garagardo Azokak

**Aisia** » Etzirako eta larunbaterako antolatuta dute, 19:00etatik aurrera, Elorri pilotalekuan; 9 garagardo izango dira.

## ERREDAKZIOA

Eskualdeko garagardozaileek ez dute atsendenik izango hil honetan zehar. Irurakoa igaro berri eta dagoeneko badute hitzordu berri bat asteburu honetan. Hain zuzen, etzirako eta larunbaterako Alegiako V. Garagardo Azoka antolatuta du Intxurre futbol taldeak, Alegiako Udalararen eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN laguntzarekin.

19:00etan irekiko ditu atek Elorri pilotalekuan kokatu duten Garagardo Azokak eta zerbitzatzen Intxurre taldekoak ariko dira. Esperientzia badute, izan ere, aurtengo bosgarren aldia izango dute.

Aukeran bederatzigaragardota izango dira, horiak, tostatuak



Ezker-eskuin, aurtengo Garagardo Azokaren kartela; izako azokaren irekieraren une bat. HITZA/N. URBIZU

eta beltzak. Janaria ere ez da falta; itxurazko garagardo azokak eskatzen duen bezala, ukondo eta saltxitxak izango dira. Gazta eta bizkotxo ere jarriko dituzte postre bezala. Lortzen den dirua futbol elkartera bideratuko dute.

## «Fetxarekin asmatu dugula uste dugu»

Alegiako Garagardo Azokak hainbat fetxa ezagutu ditu urte hauetan zehar. Aste Santuan egin izan dute, eta apirillean edota maiatzan ere antolatuta izan dute.

Aurten, berriz, uztailean egitea erabaki zuten, herriko Karmen jaien gertutasuna zela eta. «Aurtengoan asmatu dugularen irudipena dugu, izan ere, kanpotik jende asko etortzen ez bada ere, herrikoak bertan izango dira», azaldu

## » HAINBAT DATU

- **Zer.** Alegiako V. Garagardo Azoka.
- **Noiz.** Etzi eta larunbatean, hilaren 11 eta 12a, 19:00etatik aurrera.
- **Non.** Elorri pilotalekuan.
- **Edateko.** 9 garagardo mota aukeran: Guinness beltza, Affligem, Paulaner horia, Paulaner tostata, San Miguel 0,0, San Miguel 1516, San Miguel, Grimbergen horia eta Grimbergen tostata.
- **Jateko.** Ukondo, saltxitxa, gazta eta bizkotxo.
- **Prezioa.** Ukondoak 10 euro, saltxitxak 2,5 euro, postreak 2,5 euro. Zerbeza arruntak 3 euro, bereziak 3,5 euro.

dute antolatzailerik. Nolabait jaien atariko modukoa izango da.

## Intxurre futbol taldean aritzeko deialdia

Zerbeza Azokaren antolatzailerik, Intxurre elkartekoek, deialdia luzatu dute 2008/09 denboraldian Intxurre futbol taldean aritu nahi dute mutikoei zuzenduta. Hala, Jubenil eta lurraldeko (errejional) mailatan aritu nahi dutenak datorren uztailean 23an, asteazkena, Alegiako Elorri futbol zelaira gertura daitezke, entrenamendurako arropa egokiarekin.



## HITZA eta Groseko Indarra elkartuta

**KIROLA** » HITZA eta Groseko Indarra Surf Taldeak elkarlan hitzarmena sinatu dute, hilaren 24tik 27ra Zurriola hondartzan egingo den Pro Junior Surf Txapelketari begira. Europako junior zirkuituan dago eta ondorioz, Europako hainbat herritako surfari gazteak

lehiatuko dira Zurriolan. Surfariak HITZAren logoa eramango dute jantzietan, eta euskarazko egunkariak, bere aldetik, txapelketari parte zabalduko emango dio. Argazkian, Ion Lopez HITZA egunkariaren ordezkaria eta Haritz Mendiluze Indarra Surf Taldeko kidea. H.

## Harizpekoak Iruñeara eta Salamancara

**Tolosa** » Jubilatuen elkarteok bihar Iruñeko sanferminetara joango dira; izen-ematea elkartean bertan egin dezakete.

## ERREDAKZIOA

Tolosako Harizpe jubilatuen elkarteok Iruñeko San Fermin jaiekin bat egin nahi dute. Hori dela eta biharko irteera antolatuta dute eta jai giroan barneratuko dira bete-betean, zuri-gorri koloreak soinean jantzita.

Bertara joateko interesa dutenek elkartean bertan eman dezakete izena. Bertako giroa ezagutu ondoren, Blanca de Navarra jate-

txean bazkalduko dute, ondoren jaiari jarraipen egokia eman ahal izateko.

Ez da, ordea, jubilatuen elkartetik antolatuta duten irteera bakarra. Hain zuzen ere, datorren irailaren 14a eta 19a bitarte Gaztela eta Leon (Espainia) ezagutuko dute. Hain zuzen ere, Salamancara irteera antolatuta du lau egunetarako. Bertara joateko izen-ematea dagoeneko zabaldu dute eta elkartean bertan eman daitezke.

## Bazkideek, merkeago

Elkarteko bazkide direnek 226 euro ordaindu beharko dituzte izena ematerako garaian; ez bazkideentzat, berriz, 231 eurokoa izango da prezioa.



# hitza

elastiko berriak salgai  
haur, gazte eta helduentzat



Harpidedunentzat  
**%25**  
merkeago

Tolosako  
HITZAren  
bulegoan  
eskuragarri.

elastikoarekin  
**poltsa opari!**



## Laburrak

### Oporretako argazkien lehiaketa antolatu dute

**ELDUAIN** • Udalak Oporretako argazki lehiaketa antolatu du. Irabazlearen izena herriko festetan esango da eta saria izango du. Argazkiak noizkoak diren ez da garrantzitsua izango, izan ere, Udalak baldintza bezala oporretan aterako argazkiak izatea jarri du. Argazkiak [kultura@elduain.com](mailto:kultura@elduain.com) helbidera posta elektronikoz bidali behar dira, izen-abizenak jarri eta nahi bada komentario txiki batekin. Argazkiak jasotzeko azken eguna abuztuaren 29a izango da.

### Festa Batzordearen bilkura gaur 20:00etan

**IBARRA** • Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak, San Bartolome 2008 jaien antolaketarekin jarraitu asmoz, gaur 20:00etan Udal Pleno Aretoan Festa Batzordearen bilkura egingo du. Udal Batzordeak herritar guztiei deialdia luzatu die gaur bilkuran parte hartzeko eskatuz. Festa Batzordeko kideak antolatzen ari diren San Bartolome jaiak abuztuaren 22an, ostiralean, hasiko dira eta 26ean, asteartean, amaituko dira Koadrilen Egunarekin.

## Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-ALKIZA-HERNIALDE.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosaldeale bus:** 943 650621

**Leitzarar autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320



San Fermin Torneoaren aurkezpenaren erremontistak Iruñeko zezen plazan bildu zituen enpresak argazkiak ateratzeko. HITZA

# San Fermin Torneoa irabazi nahian dabilta eskualdeko erremontistak

**Erremontea** » Patxi Zeberio, Garikoitz Altuna eta Imanol Altuna uztailearen 12ko finalaren atzetik.

#### ASIR IAEMAZ

Sanferminetako Binakako Erremonte Txapelketa iragan astean aurkeztu zuen Remonte Berri enpresak. Eskualdeko hiru erremontistak, Altuna anaiak eta Patxi Zeberio, txapelaren lehian arituko dira. Altuna I.ak Etxeberria III.a izango du atzelari postuan. Altuna II.ak Eizaguirre eta Zeberio II.ak San Miguel gaztearekin osatuko du bikotea.

**Finala uztailearen 12an**  
Sandua Olio Torneoan edo Sanferminetako Binakako Torneoan sei bikote ari dira lehian bi ligaxkakan antolatuta. A eta B taldeko bi bikote

onenak finalerdietan gurutzatuko dira. Ondoren bikote irabazleak final handia jokatuko dute uztailearen 12an Huartero Euskal Jai Berri pilotalekuan 16:00etatik aurrera.

#### Torneoko lehen partidak

Patxi Zeberioi San Miguelen laguntzarekin txapelketa oso indartsu hasi zuen. Uterga-Lizaso (40-20) jipoiu egin zituzten lehen partidari. Altuna I.ak ez zuen hain ongi

hasi San Fermin Torneoa, Uterga eta Lizasok 29an utzi baitzituzten Imanol Altuna eta Etxeberria III.

Garikoitz Altunari dagokionez, lehen partida galdu ostean bigarrena irabaztea lortu zuen Eizaguirre atzelari lanetan zuela. Lehen partida negargarria izan zen, 16an utzi baitzituzten Ezkurra-Aizpuru bikoteak. Bigarrenean Urriza-Urrutia 37an utzi zituzten Altuna II.ak eta Eizaguirrek.

# Pilota ikasturte amaierako jaialdia

**Pilota** » Tolosa eta Ibarako pilotari gaztetxoek Oinatz Bengoetxearen bisita jaso zuten.

#### A. IMAZ

Pilota-Aniztasuna Kirol Elkarte Errekreatiboak ekainaren 19an amaitu zuen denboraldia. «Urte polita izan da, eta beraz, modu berean amaitu beharra zegoen. Gerturatu ziren haur eta pilotari gaztetxoak buruz-buruko txapeldu handiarekin egoteko aukera izan zuten».

Balorazio positiboa egiteaz gain, Elkarte kideek Oinatz Bengoetxea ezagutzeko aukera eskaini



Oinatz Bengoetxea Tolosa eta Ibarako pilotari gaztetxoekin. HITZA

zientzian hurrei. «Txapeldu handi baten moduan egin zen Bengoetxea, pazientzia handiz», Tolosa eta Ibarako pilotari gaztetxoak si-

naturak eskatu zizkieten leitzararri. Ondoren denak kamararen aurrean jarri eta argazkia atera zuten.

Bengoetxearekin egon ostean, hainbat asteburutan jokatutako banakako txapelketaren finalak jokatu ziren. «Partida ederrak eta giro bikaina izan ziren Beotibar pilotalekuan».

Hauk amaitu eta gero, pilota eskola barneko txapelketa horretan parte hartutako pilotari guztiei domina bana banatu zitzaion, eta txapeldu eta txapelduordeei, zegokien garaikurra. Horrekin guztiarekin gutxi ez, eta gerturatu ziren pilotari guztientzako merienda banatu zen.

Datorren denboraldiari begira, irakasleek «modu berean jarraitzeko asmoa» azaldu zuten, pilotari txikienean esku pilota, zesta punta, erremontea eta pala ezagutu eta horietaz goza dezaten.



Zonaldearen etorkizuna definitzeko bilerak egin dituzte herritarrekin eta aurrerago ere egingen dituzte, jendearen parte-hartzea «ezinbestekoa» baita. N. GARZIA

## Amaitu da zonaldeko plan estrategikoa egiteko lehen fasea

**Agenda 21»** Txostena udaletxean irakur daiteke, edo Cederna-Garalaruko egoitzan eta abuztuaren 7ra arte proposamenak egin daitezke.

### NAIARA GARZIA

Agenda 21ek amaitu du jada zonaldeko plan estrategikoa burutzeko lehenengo zatia. Hori dela eta, ekainaren 26an prozesuaren koordinazioa daraman Batzordean Mendialdeko Agenda 21 lantaldeak *Mendialdeko errealditatearen osoko Análisi-Diagnosi* txostena aurkeztu zuen. Horretarako 10 hilabetetan hainbat bilera, elkarrizketa eta datu bilketa egin dituzte, eta txosten hori horien guztien azterketa eta balorazioaren ondotik lortutakoa da, eta Agenda 21aren bigarren faserako oinarria.

### Batzordea

Hilabete hauetan guztietan martxan dagoen prozesu honen buru batzorde bat da, eta hau osatzen dute batetik Nafarroako Gobernu-ko teknikaria den Rafael Tortajadak, bestetik Terra-Prometea lantaldeak, Cederna-Garalaruko Elena Irigoienek eta 8 Udaletako alkate edo zinegotziak. «Normalean egiten duguna da beraiekin koordinatu prozesua nondik nora eramanean, beraiek eskatu digutelako hau guztia martxan jartzea eta zerbait berria dagoenean lehenik beraiei aurkezten diegu eta gero ezagutuz itinerantea da, egun bakoitzean leku batean egiten da eta oraingo-

an Larraungo Udalean egin genuen aurkezpena», diote Terra-Prometa lan taldek.

Agenda 21 proiektuak 2 zati ditu, diagnostiko fasea eta proposamen fasea. «Diagnostiko horretan zonaldea aztertu dugu hainbat ikuspegiatik: ekonomia, gizartea, ingurumena... eta horretan jardun dugu 10 hilabete hauetan. Argazki hori ateratzeko metodo ezberdinak erabili ditugu. Guzti horrekin argazkia atera dugu eta txosten potolo hori argazkia izanen litzateke».

### Bigarren fasea

Behin hori bukatuta bigarren fasearekin hasiko dira, azken finean proiektu honen helburua zonalderako halako plan estrategiko moduko bat egitea baita, kontuan izanik Larraunalde eta Leitzaldea 2 zona ezberdin direla. «Horretarako beti da beharrezkoa ikustea aurren nola gauden batik bat ikusteko zeintzu diren gure gabeziak eta gero behin hortik hasita, zonalderako beharrezkoak diren proposamenak luzatuko ditugu».

### Bigarren fasearen metodoa

Bigarren faseari dagokionez, metodo nagusia «jendea» dela diote Terra-Prometa lantaldek. «Zerbait proposamen jada landuta di-



Bilerak egin baino lehen herritarrei inkestak egin zitzaizkien. N. GARZIA

tugu, baina gehiago landuko ditugu eta horretarako alde batetik lan talde teknikoak birsortzea da gure nahia, hau da, gaiez gai, esaterako osasun gaiak edo gizarte zerbitzuetakoak lantzeko 2 zonaldeko gizarte zerbitzuekin eta osasun zentroekin elkartuko gara eta beraiekin landuko ditugu beraiei dagokien gaiak».

Jendea oinarritzat hartuta, lehen egin zuten bezala, Larraunalderako parte-hartze foro bat egingen dute, interesa duen edonori zabaldua egonen dena eta beste bat Leitzalderako, «ikusten dugulako 2 zonaldeak ezberdintasunak dituztela, eta zaila delako ikuspegi orokor bat sortzea».

### Diagnosiaren txostena

10 hilabete hauetan egindako lanaren ondorio txosten potolo bat da. «Txosten bakoitzean saiatu gara gai bakoitzari dagokionez halako sintesi edo laburpentxo bat egingen

ideia argi bat egin dezakeela jendeak».

Terra-Prometea lan taldekoak «pozik» daude egindako lanarekin. «Beti daude gai batzuk sakonago aztertu daitezkeenak, baina azkenean hain analisi orokorra izanik ezinezkoa da, baina balio bat badu, datu pila bat bildu ditugulako txosten batean, eta hori asko baloratu zuten Udalek aurkezpena egin genuenean eta orokorrean gauza garrantzitsuenak jasotzen ditu. Aranoko arazo txikiak aztertu nahi badituzu ez duzu behar bada informazio gehiegi topatuko, baina hori ere ez da proiektu honen helburua».

### Txostenaren 9 arloak

Txostena edozein herritarrek kontsultatu dezake udaletxean edo Cederna-Garalaruko egoitzan. Hauek dira txostenean bildu dituzten 9 arloak: demografia, biztanlegoa gora doan, behera, zahartu den edo ez, hezkuntza, hirugarrena kultura, euskara eta kirolak hartzen dituena, laugarrena osasun eta gizarte zerbitzuak, bosgarrena eskualde mailako kudeaketa, hau da, mankomunitateak nola antolatzen diren eta ekonomia. Hau izango litzateke gizartea eta ekonomia arloko blokea. Gero badago beste bloke bat eta bertan ingurumen fisiko eta naturala (mendiak, errekek), lurraldea eta planeamendua (hirigintza-arauak) eta garraioa eta mugikortasuna aztertutakoak. Hirugarren atalean ingurumen baliabideak jaso dituzte: batetik ura, gero energia, hondakinak eta airearen kalitatea eta zaratia.

Txosten hau aurkeztu ondoren Udalekin epe bat ireki dute abuztuaren 7ra arte edozeinek beste zerbait gehitu nahi badu eta ekarpen horiekin itxiko lukete fase hau.

### «Orain hasten da zatirik politena»

Lan taldek adierazi dutenez, «prozesua ez dela orain amaitu nabarmendu nahiko genuke, orain hasten da zatirik politena, beti nahiko neketsua egiten delako diagnosis egitea, baina lan hori beharrezkoa, eta pena litzateke bigarren pauso horretara nekatuta iristea». Uda ondoren berriro hasiko dira jendearen parte-hartzea bultzatzen plan estrategikoa zonalderako baliagarria izan dadin, helburua, azkenean, hori baita.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



23°  
17°

GOIZA OSTARTEAK  
ARRATS.OSTARTEAK  
BEROENA 24°  
HOTZENA 17°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Irteerak

- **Anoeta.** Promozio bidaia egingo dute Alkartasuna Biltokikoek Briones herrira, Errioxan, hilaren 22an, upategi bat bisitatuz. Izen-ematea, Biltokian 18:00etatik 20:00etara, 10 eurotan.
- **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatutako elkartek Miarrizera irteera antolatu du hilaren 19rako (larunbata), Oiarzunen bazkalduz eta Hondarribia ere bisitatuz. Izen-ematea, elkartean 27 eurotan (ez bazkideek, 32 euro).
- **Tolosa.** Topaguneak Donostiako Santa Klara irlara irteera antolatu du. 15:15ean tren geltokian (5 euro).

### Deialdiak

- **Aiztondo.** Aiztondo mankomunitateak eskualdeko jubilatuen bazkaria antolatu du hilaren 20rako. Izen-ematea, 943 603930 telefono zenbakian.
- **Ibarra.** San Bartolome jaietako danborradarako entsegua Belabieta kiroldegian 20:00etan.

### Mendi irteerak

- **Villabona.** Oza-Atxerito (2.358 m)-Zuriza mendi irteera antolatu du Aizkardi mendi elkartek hilaren 13rako. Izen-ematea, elkartean bertan.

### Erakusketak

- **Alegia.** Mari Karmen Ezeizaren artelanak ikusgai daude jubilatuen tabernan. Lore eta hosto lehorrez osatutako 30 collage dira.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzotz-uzoa, 9. 943 675118.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Udako planak borobiltzeko, ze hobeto irakurtzea baino. Argazkian, Ondarroako Arrigorri hondartzan, Ametsetarako Hitza irakurtzen. LORE BENGOTXEA

Uda honetan, hondartzan zein mendian, kresaletan zein lar artean, 'Ametsetarako Hitza' liburuak irakurketaz gozatzen gonbidatzen ditu gazteak; horra irudimena fresko-fresko mantentzeko errezeta.

# Esna-esna amets egiteko letrak

## LEA-ARTIBAI ETA MUTRUKO HITZA

**M**akina bat aukera daude udaz disfrutatzen. Bartzuek hondartzarako planak egiten dituzte, beste bartzuek mendiko aukera egiten dute, eta bietatik pixka bat probatzeko modua bilatzen dutenak ere badaude. Nahi den aukera egiten dela ere, plana borobiltzeko era eskaintzen du HITZAK: irakurketa.

Eskualdeko egunkari euskalduna bultzatzeak merezi zuela eta, Lea-Artibai ko idazleek Ametsetarako Hitza proiektuarekin bat egin zuten orain hilabete batzuk. Guztien artean ipuin liburua egin zuten, eta haien berbei hiru ilustratzailek eman zieten kolorea. Negan epeltasuna ematen zuen irakurketa horretarako berak freskotatzen dakar udarako, urtaro guztietarako da eta aproposa. Udan erre-erre jarraitzen du umeen irudimena, eta familia artean pasatzen diren egunak izanik, ze hobeto HITZAREN plana jarraitzea baino. Hondartzara doanak bainuaren ostean edo gerizpetan, izozkiari egindako miatzkada eta miatzkada artean edo ogitarkeoari haginkada eginda, irakurketa atseginean dzanga egitea aukeratu ahal du. Yolanda Arrieta, Leire Bilbao, Jon Elordi, Ana Urkiza, Miren Agur Meabe, Joxemari Urteaga,

Yolanda Larreategi, Karmele Jaio, Kirmen Uribe eta Txili Lauzirikaren berbak eta Bea Anitua, Kaiet Bengoetxea eta Bittor Txakartegiaren irudiak izango ditu lagun ametsetarako bidean. Berdineko plan ederra da mendiko buelta egin eta gero, suaren bueltan edo kanpinetako linternaren argitan letren jolasaz gozatzea. Eta trumoi hotsek eta euri zaparradek kanporako baino barrurako gonbitea egiten dutenean, patsadatsa, jesarrita edo erdi etzanda, abentura berrietan sartuko da irakurle gaztea, beharbada, aita eta ama lagun dituela. Ipuinak ahaztu zituen ipuin kontalaria gertatutako, euliekin hitz

egiten zuen Mikelen abenturak, negarrik gabeko lurtean pasatzen berbak eta Bea Anitua, Kaiet Bengoetxea eta Bittor Txakartegiaren irudiak izango ditu lagun ametsetarako bidean. Berdineko plan ederra da mendiko buelta egin eta gero, suaren bueltan edo kanpinetako linternaren argitan letren jolasaz gozatzea. Eta trumoi hotsek eta euri zaparradek kanporako baino barrurako gonbitea egiten dutenean, patsadatsa, jesarrita edo erdi etzanda, abentura berrietan sartuko da irakurle gaztea, beharbada, aita eta ama lagun dituela. Ipuinak ahaztu zituen ipuin kontalaria gertatutako, euliekin hitz

egiten zuen Mikelen abenturak, negarrik gabeko lurtean pasatzen berbak eta Bea Anitua, Kaiet Bengoetxea eta Bittor Txakartegiaren irudiak izango ditu lagun ametsetarako bidean. Berdineko plan ederra da mendiko buelta egin eta gero, suaren bueltan edo kanpinetako linternaren argitan letren jolasaz gozatzea. Eta trumoi hotsek eta euri zaparradek kanporako baino barrurako gonbitea egiten dutenean, patsadatsa, jesarrita edo erdi etzanda, abentura berrietan sartuko da irakurle gaztea, beharbada, aita eta ama lagun dituela. Ipuinak ahaztu zituen ipuin kontalaria gertatutako, euliekin hitz

Plana edozelakoa izanda ere, ez ahaztu Ametsetarako Hitza zurekin eroatea. Gaurtik eskura daukazu erredakzioan, 10 euroren truke. Oporretako maletan txokotxo bat baino ez du behar, eta, ostera, asko dauka emateko.

txokoa



## 2 harpidedunentzat

zozketan **bina afari**

deitu eta eskuratu

Uztailaren 11 eta 12an

**Alegiako** Elorri pilotalekuan  
ospatuko den **Garagardo Azokan**

